# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

IRAGARKIA, 461/05 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan interesaturik daudenak epatzeko dena. 19598

# Otros Anuncios Oficiales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ANUNCIO de emplazamiento de terceros interesados en el recurso contencioso-administrativo número 461/05. 19598

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 5528

AGINDUA, 2005eko irailaren 28koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat) Erakunde autonomiadunaren kontratazio-mahaiaren osaera aldatzekoa.

1999ko maiatzaren 14ko Aginduak Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística erakunde autonomiadunaren kontratazio-espedienteetarako kontratazio-mahaia ezarri zuen, autonomiadun erakundearen kontratazio-mahaia sortu zuen 1996ko uztailaren 12ko Aginduaren 2. artikulua indargabetuz.

Kontratazio-mahaiaren funtzionamendu-aldi honetan metatutako esperientzia eta urriaren 5eko 184/2004 Dekretuaren bidez Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketak kontuan hartuta, komeni da mahaiaren osaera aldatzea.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, honakoa

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística erakunde autonomiadunaren kontratazio-espedienteetarako kontratazio-mahaia ezarri zuen Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuaren 1999ko maiatzaren 14ko Aginduaren 1. artikuluaren 2. paragrafoaren a) eta d) atalak aldatu egin dira eta honela erredaktatuko dira:

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 5528

ORDEN de 28 de setiembre de 2005, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, de modificación de la composición de la Mesa de Contratación del Organismo Autónomo Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (Eustat).

La Orden de 14 de mayo de 1999 establece la Mesa de Contratación para los expedientes de contratación del Organismo Autónomo Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística, viniendo a derogar el artículo 2 de la Orden de 12 de julio de 1996, por la que se creaba la Mesa de Contratación del Organismo Autónomo.

La experiencia acumulada en este período de funcionamiento de la Mesa de Contratación así como las modificaciones operadas en la Relación de Puestos de Trabajo mediante el Decreto 184/2004, de 5 de octubre, aconsejan la introducción de modificaciones en su composición.

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 4 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se modifican los apartados a) y d) del párrafo 2 del artículo 1 de la Orden de 14 de mayo de 1999, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se establece la Mesa de Contratación para los expedientes de contratación del Organismo Autónomo Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística, que quedarán redactados como sigue:

«a) Presidentzia: Kudeaketa Juridiko-administratibo arloko arduraduna. Lanpostu huts, absentzia, gaixotasun edo bestelako legezko kausetan, estatistika-azpiegitura arloko arduradunak ordeztuko du.

d) Idazkaritza: Kudeaketa Juridiko-administratibo arlora atxikitako zuzenbidean lizentziadun teknikari bat, aholkulari juridiko eta hitz eta botodun idazkari lanak egingo dituena.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2005eko irailaren 28a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

«a) Presidencia: el Responsable del Área de Gestión Jurídico-Administrativa. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será sustituido por el Responsable del Área de Infraestructura Estadística.

d) Secretaría: un técnico con título de Licenciado en Derecho, adscrito al Área de Gestión Jurídico-Administrativa que ejercerá las funciones de Asesor Jurídico y Secretario con voz y voto.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de setiembre de 2005.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

# Bestelako Xedapenak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 5529

EBAZPENA, 2005eko urriaren 4koa, Funtzio Publikoaren zuzendariarena, otsailaren 25eko 1/2004 Legea aplikatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario jakin batzuen kidegoak aldatu direla jakinarazteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzekoa den otsailaren 25eko 1/2004 Legearen (2004ko martxoaren 5eko EHAA) lehen eta bosgarren xedapen gehigarriekin bat etorriz, administrazio honi atxikita dauden funtzionario jakin batzuen kidegoei dagokien izenaren aldaketa argitaratzen da.

Ebazpen honen bidez administrazio honen zerbitzura diharduten langileen kidegoak sailkatzen dira, uztailaren 26ko 190/2005 Dekretuan (2005eko irailaren 30eko EHAA) jasotako izenekin bat etorriz. Dekretu hori da, hain zuzen, Lanpostu Zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko zerbitzuko langileentzat ezargarria den otsailaren 25eko 1/2004 Legeko aurreikuspenei egokitzekoa.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 5529

RESOLUCIÓN de 4 de octubre de 2005, del Director de Función Pública, por la que se comunica la modificación de cuerpos de determinados funcionarios de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi derivada de la aplicación de la Ley 1/2004, de 25 de febrero.

De conformidad con las Disposiciones Adicionales Primera y Quinta de la Ley 1/2004, de 25 de febrero, de Ordenación de los Cuerpos y Escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos (BOPV de 5 de marzo de 2004), se procede ahora a publicar la modificación en la denominación del Cuerpo al que se encuentran adscritos/as determinados funcionarios en esta Administración.

En virtud de la presente Resolución se clasifican los Cuerpos del personal al servicio de esta Administración de acuerdo con las denominaciones recogidas en el Decreto 190/2005, de 26 de julio (BOPV de 30 de septiembre de 2005), de adecuación de las Relaciones de Puestos de Trabajo a las previsiones de la Ley 1/2004, de 25 de febrero, de aplicación al personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.